



IKASTETXE KATOLIKO ELEBIDUNEK HAIEN ATEAK IREKITZEN DITUZTE

Euskarazko irakaskuntzaz ari garelarik, ez da berez pentsatzen konfesionalak diren ikastetxeetan. Komunikazio falta? Ezagutzarik ez? Irakaskuntza katolikoak, alta, bere lekua du! Irakaskuntza Katolikoaren Elizbarrutiko Zuzendaritzaren babesean, 50 ikastetxek euskarazko irakaskuntza elebiduna proposatzen dute Iparraldean: 32 ikastetxe, 12 ikastetxe eta 6 lizeo, 3500 ikasle baino gehiagorentzat ! 32 ama eskoletatik 18k murgiltzea proposatzen dute (% 100 euskaraz).

Euskal Haziak elkarteak, ikastetxe katoliko elebidunetako gurasoak, irakasleak eta zuzendariak biltzen ditu. Bere eginkizun nagusia irakaskuntza elebiduna sostengatzea eta sustatzea da, ikasleei urtean zehar euskarazko aktibitateak proposatuz (euskarazko ikusgarriak, ipuin idazte lehiaketa, Uda Lekuk antolatuturik diren egonaldietan parte hartzea) baita ere gurasoendako informazioa/sentsibilizazioa garatuz, euskara eskolako ikasgelatik ateratzeko (familiendako agenda, euskarri ezberdinak).

Ikastetxe guzien federatzeko eta familiei Irakaskuntza Katolikoan euskarazko irakaskuntzaren presentzia ezagunarazteko edo gogorarazteko, ate irekitze egun bat antolatua da 2024ko otsailaren 3an, larunbat goizean, aldi berean Iparraldeko 36 eskola, kolegio eta lizeotan!

Parte hartuko duten zerrenda :

- **BAB:** Angeluko Stella Maris eskola eta lizeoa / Arbonako Jondoni Laurendi eskola/ Hiriburuko Jondoni Petri eskola
- **Errobi:** Ezpeletako Jondoni Extebe eskola/ Haltsuko Maurice Harriet eskola/ Itsasuko San Josep eskola Kanboko Santa Maria eskola eta San Mixel kolegioa / Larresoroko San Martin eskola/ Uztaritzeko Jondoni Bixintxo eskola/ Zuraideko Bihotz Sakratua eskola

- **Hazparneko lurraldea:** Aiherrako Sortzez Garbia eskola/ Beskoitzeko Jondoni Bixintxo eskola/ Hazparneko Santa Teresa eskola, Ursuia kolegioa , Armand David Lizeoa eta San Josep Lizeoa
- **Urdazuri:** Hendaiako Jondoni Bixintxo eskola/ Senpereko San Josep eskola eta Arretxea Kolegioa / Urruñako San Frantses Xabier eskola/ Ziburuko San Mixel eskola/ Donibane Lohitzuneko Dona Maria kolegioa / Donibane Lohitzuneko San Tomas Lizeoa
- **Xiberoa eta Baxenabarre:** Altzaiko San Luis eskola/ Aldudeko Mendi Alde eskola / Baigorriko Donostei eskola eta kolegioa / Donapaleuko Etxekopar eskola eta kolegioa / Donazarreko San Mixel eskola/ Donibane Garaziko Santa Maria eskola eta Mayorga kolegioa / Mauleko San Frantses kolegioa/ Orzaizeko San Mixel eskola

Euskal Haziak bere sareko ikastetxeak bisitatzera gomitzen ditu gurasoak, haien identitateak, proiektu pedagogikoak eta bertan lan egiten duten irakasleak hobeki ezagutzeko.

Ongi etorri gure ikastetxetara ! Elebidun bietan hobe !

Kontaktuak

Laetitia Eizmendi lehendakaria 06 38 91 18 01

Christelle Pucheu koordinatzailea 07 72 55 63 53